

Liburutegixan bezero larregi

Udal liburutegixak bost urte daroiaz martxan. Batzokixan zeuana kendu eta gero, urtiak beranduago zabaldu zan barri hau. Baiña oin txikiegixa da.

Sartu-urten itzela ikusten da, ta arratsaldietan gaiñezka egoten da. Kulturako ziñegotzixa dan Carlos Cañok esan doskunez, "bere erabilpena igotzen juan da. Lehen liburutegixa liburuak hartzeko leku bat zan bakarrik, etxian irakurri ta bueltatzeko barriro. Baiña oin ikasteko leku bat da. Kontutan hartuta Ermuko etxe gehixengua bihargiñen etxiak diala, txikixak ta ikaslientzako intimidade bakuak, askok hementxe ikasten dau".

Egunero 160 bat pertsona sartzen dia. Heuren eskola liburuak besapian hartuta



IGNACIO PEREZ

Udal bibliotekako erabiltzaile batzuk.

ikastera datozenetik aparte, beste asko etxian ez daukien entziklopedia edo liburu arraro xamar hori topatzeko asmoz sartzen dia. Taldian etortzen dianak be ikusi leikez, eskatutako elkarren arteko bihar hori eitteko asmotan.

Hortik kanpo ikasten dabizenak dia bertako liburuak gehixen kontsultatzen dittuztenak. Entziklopediak, hiztegixak, liburu teknikuak ta Buletin Ofizialak etara ezin dianeaz, bertan irakurri bihar dia. Oin, ez pentsau etxera ta liburutegirik ez danik eruaten! Martxuan, esate baterako, 812 liburu emon dia, nobela ta poesia gehixen bat. Euskarazko liburuak diala ta, nagusixak irakurtzeko ohittura urrixa daukie, baina

eskolaumiek gero ta kontsulta gehixago eitten dittuezela aittatu doskue.

Gaur egungo 7.500 aliak, 18.000ra allegau leikez Cañoren ustetan, Udaletxiaren asmuak betetzen badia, "polikiroldegi barrixan beste liburutegi bat ipiniko da martxan; Torreta Etxia be ikasteko gela batekin hornitzeko asmuak daukagu".

Liburuak eskura ipintziaz gaiñ, bertako arduradunak herriarrak irakurtzera zaletu ta liburutegixa ezagutu deixela nahi izan dabe. Oin aste batzuk umiak irakurtzera animatzeko, plazan ekintza ezbardinak ein zittuezen. Geruago, liburutegixa urraratzeko asmoa zala ta, lehiaketa berezi bat burutu da. Bost ikastetxe ta herriko 15 kolektibuen artian eindako eliminatorixen ostian, apirilaren 23an ospatutako finalian Santiago Apostol ikastetxea ta Igor Arrarte, Angel Vega ta Eduardo Oriok osatutako taldea geratu zian irabazle. Zorionak!

Estibalitz Gonzalez

Carlos Cañok:
"Polikiroldegi barrixan
liburutegi bat ipiniko da"



ELEKTRIZISTA


José Angel Ziarsolo Izaguirre

Izelaieta kalea, 4
☎ 17 29 38 - Merkatuan, 17 47 30

SIRIMIRI TABERNA

Pintxo eta bokatak

Erdiko kale, 11



ARRAINDEGIA
eta
ITSASKIA

DOMINGUEZ

Eibarko Merkatu Plaza
Tfnoa: 11 80 38

Tlf. partikularra: 11 77 25
Ermuko Merkatu Plaza

Tfnoa: 17 03 38
Tlf. partikularra: 17 02 84